

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea hasierako onarpen baten aldaketa, hain zuzen ere Amurrion, Abiagako SAPUR 12 sektorean, prezio tasatuko 39 etxebizitza, trasteleku eta garaje plaza esleitzeko oinarriena. Espedientea: 04085D101 I. ald

Udalbatzak, 2017ko uztailaren 27an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea bigarren klausularen aldaketari Amurrion, Abiagako SAPUR 12 sektorean, prezio tasatuko 39 etxebizitza, trasteleku eta garaje plaza esleitzeko oinarrietan, zeina hemen transkribatzen baita:

“BIGARREN KLAUSULA. EZAUGARRIAK. Hasierako idazkera:

Jabe sustatzaileak udalak adierazitako esleipendunei prezio hauetan salduko dizkie etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak, hurrenez hurren: 1.684,51 euro/metro karratu erabilgarria, 18.000 euro garaje unitate bakoitza eta 600 euro/metro karratu erabilgarria.

Etxebizitza nahitaez eroslearen edo bizikidetzaren unitatearen ohiko etxebizitza iraunkorretarako erabili beharko da, eta haien erabilera ezingo zaie hirugarrenei ez alokatu ez laga.

Baldintza hori ez betetzeak ekarriko du esleipena automatikoki errebotatu eta iraungitzea, muga horiek erostea eteteko baldintza baitira, eta salmenta eskriturretan ohartarazi behar baitira erosleak eskuratzeko eta erabiltzeko dituen muga horiek.

Kasu horretan, itzulketa Amurrioko udalaren edo hark izendatzen duenaren alde egin beharko da, hala emanik baldintza horri hirugarren baten aldeko estipulazio izaera (Kode zibilaren 1.257 artikulua).

Edozein kasutan, itzulketa horrengatik ordaindu beharreko prezioa erosketa prezioa baino % 20 txikiagoa izango da, inolako koefiziente zuzentzailerik gabe.

BIGARREN KLAUSULA. EZAUGARRIAK. Proposatutako idazkera.

Jabe sustatzaileak eskuratze oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten esleipendunei prezio hauetan salduko dizkie etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak, hurrenez hurren: 1.684,51 euro/metro karratu erabilgarria, 18.000 euro garaje unitate bakoitza eta 600 euro/metro karratu erabilgarria.

Etxebizitza nahitaez eroslearen edo bizikidetzaren unitatearen ohiko etxebizitza iraunkorretarako erabili beharko da, eta haien erabilera ezingo zaie hirugarrenei ez alokatu ez laga, salbu Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoa den babes ofizialeko etxebizitzaren indarreko araudian jasota dauden aparteko inguruabarrengatik.

Baldintza hori ez betetzeak ekarriko du esleipena automatikoki errebotatu eta iraungitzea, muga horiek erostea eteteko baldintza baitira, eta salmenta eskriturretan ohartarazi behar baitira erosleak eskuratzeko eta erabiltzeko dituen muga horiek.

Kasu horretan, itzulketa Amurrioko udalaren edo hark izendatzen duenaren alde egin beharko da, hala emanik baldintza horri hirugarren baten aldeko estipulazio izaera (Kode zibilaren 1.257 artikulua).

Edozein kasutan, itzulketa horrengatik ordaindu beharreko prezioa erosketa prezioa baino % 20 txikiagoa izango da, inolako koefiziente zuzentzailerik gabe.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 69-72 artikuluetan xedatutakoa betez, espediente hau jendaurrean jartzen da hogeita hamar (30) egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horretan interesdunek aukera izango dute espedientea udal bulegoetan aztertzeko eta egoki jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Jendaurreko izapide aldiaren erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, aldaketa behin betiko onartutzat joko da, horretarako beste erabaki bat hartu beharrik gabe.

Amurrio, 2017ko irailaren 7a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA